



ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ikastetxea:	Ikasbidea IPI	kodea:	010012
etapa:	DBH	zikloa/maila:	Batxilergo ko 2.
arloa/irakasgaia:	ESPAINIAKO ETA EUSKAL HERRIKO GEOGRAFIA		
osatutako arloak/irakasgaiak	GEOGRAFIA		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza eta literatura komunikatzeko kompetentzia - Matematikarako kompetentzia - Zientziarako kompetentzia: - Teknologiarako kompetentzia - Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia - Arterako kompetentzia - Kompetentzia motorra 		
irakasleak:	Ainhoa Villaverde Barrutiabengoa	ikasturtea:	2022/2023

Zeharkako kompetentziak

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales* :

1. Hitzez, hitzik Gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiritu ekintzailerako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak MINIMOAK
<p>Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia 2. Matematikarako kompetentzia 3. Zientziarako kompetentzia 4. Teknologiarako kompetentzia 5. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia 6. Arterako kompetentzia 7. Kompetentzia motorra <p>(Kompetentziak zenbakien bidez adieraziko dira)</p> <p>2. multzoa: Eremu geografikoaren batasuna eta aniztasuna.</p> <p>- Euskal eta espainiar eremuen kokapen</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1.- Euskal eta espainiar eremu geografikoaren aniztasuna eremu dinamiko gisa aztertzen eta azaltzen du, naturaren eta denboraren marko jakin batean eragina izan duten prozesu naturalen, sozialen, ekonomikoen, teknologikoen eta kulturalen arteko elkarrekintza ulertzeko. 2. Lurraldearen antolaketaren oinarrizko elementuak identifikatzen eta ulertzen ditu, Espainia eta Europar Batasuna osatzen duten lurraldeen arteko harremanak ulertzeko. Eremu gertuetaranzko eta urrunetaranzko ezagutza-, estimu- eta lankidetzaz-jarrerak garatuz, aurreiritziak gaindituz eta elkartasunez jokatu. 3. Natura-ingurunearen ezaugarri



geografikoa. Batasun eta aniztasun-faktoreak. Lurralde-antolaketa: prozesu historikoak eta gaur egungo antolaketa politiko-administratiboa **1, 2, 3, 4, 5.**

- Espainia Europan. Europar Batasunaren eraikuntza-prozesua. Eskualdeetako eta lurralde-koehesiorako politikak. Espainiaren kokapena Europar Batasunean. Euskal Herriko lurraldeak Europar Batasunean **1, 2, 3, 4, 5.**

- Globalizazioa eta aniztasuna munduan: mundializazio-prozesuak eta lurraldeen arteko desberdintasunak. Munduko ardatz handiak. Espainiaren eta Euskal Herriaren kokapen erlatiboa munduko esparru sozioekonomikoetan eta geopolitikoetan **1, 2, 3, 4, 5.**

3. multzoa: Dinamika ekogeografikoak

- Espainiako eta Euskal Herriko natura-ingurunea. Elementuak: erliebea, klimak, landaredia, zoruak eta baliabide hidrikoak. Natura multzo handiak: elementu eta mota nagusiak. **1, 2, 3, 4, 5**

- Natura babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko politikak. **1, 2, 3, 4, 5.**

- Natura/gizartea elkarrekintza. Faktore politikoek, sozioekonomikoek, teknikoek eta kulturek eremu geografikoen osieran eta aldaketan duten zeregina **1, 2, 3, 4, 5.**

4. multzoa: Eremu geografikoa eta ekonomia jarduerak

Jarduera ekonomikoen eta eragiten dituzten dinamiken eta arazoaren ezaugarri orokorren deskribapena. **1, 2, 3, 4, 5.**

- Espainiako estatuko eta Euskal Herriko nekazaritza-eremuak: aldaketarik berrienak, nekazaritza-egituraren elementuak. Nekazaritza Politika Bateratua **1, 2, 3, 4, 5.**

- Itsas baliabideak, arrantza-jarduera eta akuikultura. **1, 2, 3, 4, 5.**

- Eremu industrialak. Lehengaiak eta energia-iturriak. Sektore industrialaren bilakaera. Berregituratze industrialak eta

orokorrak ezagutzen ditu, Espainiako eta Euskal Herriko paisaia naturalak ezagutzeko, bertako elementuak eta dinamika identifikatuz, euren arteko elkarrekintza azalduz eta gizakiaren ekintzak haietan duen eragina balioetsiz.

4. Euskal eta espainiar biztanleriaren banaketa, dinamika eta egitura deskribatzen ditu, biztanleria eremu geografikoaren aldaketa maila azaltzeko faktore garrantzitsua dela ulertzeko; horretarako prozesu historikoak azalduko dira eta desberdintasun ekonomikoen, populazioaren banaketaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arrazoiak eta ondorioak azalduko.

5. Populazio motak bereizten ditu eta euskal nahiz espainiar hiritartze-prozesua ulertzen ditu, eta industriaren eta zerbitzuen kokatzearekin lotzen ditu. Morfologiaren oinarritako ezagutzak, hirien funtzioak (bizitzeko, industriarako eta merkataritzarako) eta hiri-eremuan duten banaketa ezagutzen eta identifikatzen ditu, aldaketa-faktoreak eta sortzen diren ingurumen-arazoak ulertzeko.

6. Jarduera ekonomikoak, haien azken bilakaera eta haien kokatzea zehazten duten faktoreak aztertzen ditu, ingurunearen eta ingurunea betetzen duten giza taldeen arteko elkarrekintza ezagutzeko, populazioaren gaur egungo banaketa eta ingurumen ondorioak ulertzeko.

7- Natura-baliabideen gaur egungo ustiapen-eredua aztertzen ditu, sortzen dituen ingurumen- eta gizarte-arazoaren kontzientzia hartzeko, globalki pentsatzeko eta, lekuan-lekuan, zuhurtasunez, eraginkortasunez eta elkartasunez jarduteko.

8. Espainia eta Euskal Herriaren kokapena eta, elkarrekin erlazioatutako mundu batean, estatuko lurraldeen arteko harremanak esplikatzen ditu, datu ekonomikoak eta demografikoak aztertuz, ekonomiaren uniformizazio-prozesuak eta desberdintasun sozioekonomikoko prozesuak aldi berean gertatzen direla ulertzeko.

9. Errealitate sozial eta espazial



gaur egungo joerak. Espainiako eta Euskal Herriko bigarren sektorea: ezaugarriak eta kokapena **1, 2, 3, 4, 5**.

- Zerbitzuen sektorea: ekonomiak hirugarren sektorerako duen joera, garraioak eta komunikazioak: eragina lurraldearen egituratzean. Eremu turistikoak: ekonomiaren garrantzia, turismo motak, eskualdeak eta ingurumen-eragina **1, 2, 3, 4, 5**.

-Jarduera ekonomikoen ondorioak ingurumenean eta gizartean. Gaur egungo ekoizpen-sistemak eta haien banaketan ageri diren desoreken balorazioa.

- Ekonomia-banaketan ageri ohi diren desoreken kokatzea eta balorazioa.

5. multzoa. Biztanleria, hiri sistema eta eskualdeen arteko kontrasteak

- Iturri demografikoak. **1, 2, 3, 4, 5**

Espainiako eta Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera. Hazkunde naturala, migrazio-mugimenduak eta desberdintasun espazialak. Gaur egungo egitura demografikoa eta perspektibak. Immigrazioaren garrantzia. **1, 2, 3, 4, 5**.

- Hiri-populatzea. Hiriaren morfologia eta funtzioak. Espainiako eta Euskal Herriko hiri-sarea: hierarkia eta egitura. Hiritartze-prozesua. Bizimodua hirietan. **1, 2, 3, 4, 5**.

- Lurraldeen arteko kontrasteak: desberdintasun espazialak, demografikoak eta sozioekonomikoak. Lurraldeen arteko kontrasteak eta desorekak. Eskualde-politikak eta kohesiorako politikak **1, 2, 3, 4, 5**

desberdinen kontzientzia hartzen ditu lurraldearen antolamenduari eragiten dioten erabakietan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko, naturaren oreka eta gizartearen berdintasuna sustatzeko beharrezana balioetsiz.

10. Fenomeno geografiko konplexuak era askotako ikuspuntuetatik ulertzen ditu, tartean generoaren ikuspuntutik, kausa ugariko azterketak eginez, gaur egungo gizarteari eragiten dioten arazoak ulertzeko.

11. Iturri eta teknika geografiko askotarikoak erabiltzen ditu,, informazioa bilatzeko eta informazio hori komunikatzeko azalpen testu koherente eta ondo antolatuetan, terminologia egokia erabiliz



EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA
NATURA ETA INGURUMENA	BIZTANLERIA, HIRI-ESPazio ETA LURRALDE ANTOLAKETA	ESPazio GEOGRAFIKOA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK
1.Espainiako eta EAE-ko espazio geografikoa. Askotariko morfologia	5.Espainiako eta EAE-ko biztanleria	8.Lehen sektoreko espazioak
2. Klima dibertsitatea	6.Hiri espazioa	9.Industria espazioak
3.Dibertsitate hidrikoa eta biogeografikoa	7.Lurralde antolaketa eta eskualdeen arteko desorekak	10.Zerbitzuen espazioak -----
4.Paisaia naturalak eta naturaren eta gizartearen arteko eraginak		11. Espainia eta Euskadi European eta munduan

METODOLOGIA [edukiaren antolaketa, jardueraren motak, baliabide didaktikoak, ikaslearen taldekatzeak, espazioaren eta denborearen antolaketa, irakaslearen eta ikaslearen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Irakasleak Classroom bidez partekatutako dituen baliabide material anitzak erabiliko dira oinarri gisa. Horiak sortzeko, ikasturtearen hasieran EHUtik igorritako hautaprobak prestatzeko programazioa erabiliko da eta ikasleei banatuko zaie. Izan ere, hau da ikasturtean zehar egingo den lana ardazten duen dokumentua. Azalpenak hobeto jarraitu ahal izateko eta ematen zaizkien materialak kokatzeko baliagarri izango zaie programazioa. Edukiak 3 ataletan banatuko dira eta selektibitateko azterketaren egitura oinarri hartuko da. Lehenik eta behin, definizioak modu ludikoan eta esanguratsuan landuko dira (taldekako Hitz Jokoaren bidez). Ondoren garapen teorikorako gidoiak zein edukiak (irakaslearen azalpen magistralen eta ikaslearen arteko taldekako ikaste-irakaste kooperatiboaren bidez edukiak ulertzeko). Hirugarrenik, ikasle bakoitzak edukiei lotutako galdetegi ebaluagarri bati erantzungo dio (azalpenei emandako arreta eta oinarriko edukiaren asimilazio maila ebaluatzeko. Gero, gaiari lotutako ariketa praktikoetan trebatuko dira (ariketen bidez ikasitakoa aplikatzeko). Azken ariketa praktikoa ebaluagarria izango da. Azkenik, ikasleek gaiari lotutako hausnarketa indibidual bat eta azterketa bat burutu beharko dute ebaluaketa guztietan. Azterketan, memorizazio eskaera progresiboki igoko 3 ebaluaketetan zehar, memorizazio teknikan sakontzen joan ahala. Lehenengo ebaluaketan, adibidez, ikaste kuadernoaz lagunduta egin ahal izango dute iruzkina. Sekuentzia ixteko, Errefortzurako Fitxa (dagokienei) zein autoebaluazio rubrika bete. Azken bi hauen helburua, ikasleei ikasten irakastea da. Ikasleak talde lanean ari direnean, irakasleak jarrera eta euskararen erabilpen maila ebaluatzeko txantiloak beteko ditu. Prozedurak klase praktikoetan landuko dira eta horrela irakasleak ikasle bakoitzaren bilakaera ikuskatuko du ere. Ikasleek ebaluagarriak izango diren hainbat lan egin beharko dituzte etxean: eduki teorikoak Ikaste Kuadernoan (edo nahiago duten beste medio baten bidez: bideoa, twitter haria, bloga jaso, hausnarketa indibiduala, Errefortzu Fitxa eta autoebaluazioa. Osagarri moduan, unitate didaktiko batzuetan memorizazio teknikak landuko dira (ABSUME. DESUSE, Herigon) eta ikasleek hala eskatzen badute, sakontzeko informazioa edota beste baliabide batzuk



eskeiniko zaizkie. Hiruhilabete guztietan, unitate didaktikoetako batean, hausnarketa inbidualean hezkidetzari lotutako elementu bat txertatuko da.

Erabiliko ditugun IKT baliabideak

-Classrooma, ikasgaiko webgunea: bertan egongo dira ikasleek beharko dituzten eduki, multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak, power pointak...) eta bete beharreko lanak.

-Google drivea: ikasleen artean informazioa partekatzeko

-Arbela digitala mapak, irudiak eta bestelakoak lantzeko erabiliko dira.

-Anki: definizioak eta bestelako datu laburrak memorizatzeko.

-Interneten aurkitu daitekeen baliabide oro: geografiari lotutako webgune espezializatuak, wikipedia...

-Hiruhilabete amaieran, denbora tartea egon ezkerro, honako tresnak eskeiniko zaizkie: Canva (kartelak egiteko), Genially Trivial (informazioa modu ludikoan barneratzeko)

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<p>-Galdetegi azkarra(k) -Ikaste kuadernoak edo ikasleak eskatu zaizkion edukiak biltzeko hautatutako tresna -Hausnarketa indibiduala (hiruhilabetearen behin) -Ebaluazio, autoebaluazio eta koebaluazio testak -Jarrera -Azterketa</p> <p>Jarreraren autoebaluazioan, koebaluazioan zein irakasleak egingo duen ebaluazioan euskararen erabilera eza edo erabilpena neurtu eta puntuatuko da beste item batzuekin batera: partehartzea, emozioen kontrola edota lanen entregatze epeen betetzea, besteak beste</p> <p>Ikasleren batek nahi izango balu nota igotzeko frogarik egitea, froga hau egingo da kurtsoaren amaieran, materia osoaren inguruan. Ez zaio jaitziko nota batez bestekoa baino gutxiago aterako balu</p>	<p>NOTAREN EGITURA</p> <p>-Galdetegi azkarrak % 10 -Ikaste kuadernoak edo ikasleak eskatu zaizkion edukiak biltzeko hautatutako tresna %10 -Iruzkin praktikoa %10 -Jarrera: behaketa, autoebaluazio eta koebaluazio testak (4-3-3) %10 -Hausnarketa indibiduala (ebaluaketa bakoitzean bana) %10 -Azterketa (ebaluaketa bakoitzean bana) %50</p> <p>Ebaluazioa gainditzeko, ezinbestekoa da, gutxienez, 5 puntura heltzea.</p> <p>Epez kanpo entregatzen diren lanetan, soilik puntuazioaren erdia eskuratu ahalko da</p> <p><u>Oharra:</u> ikasleren bat, ez bada azterketara aurkezten JUSTIFIKANTE MEDIKOA ekarri beharko du edo bere gurasoek deitu beharko dute egun berean. Hau aurkeztu ezean ikasleak gai horren azterketa hurrengo gaiarekin batera egingo du.</p> <p>Kurtso bukaerako nota hiru ebaluaketen media izango da.</p>



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

-Ebaluazioak berreskuratu ahal izateko gutxieneko helburuak bete beharko dira. Irakasleak laguntza berezia eskainiko die berreskuratu behar duten ikasleei: beraientzako indartzeko baliabideak edo ariketak, azalpen bereziak...

-Suspenditutako ebaluazioak berreskuratu ahal izango dira ebaluazio bakoitzaren ondoren. Berreskuratuz gero, 5 (NAHIKO) izango da gehienezko nota.

-Nola? Ikasleari 5era iristeko falta zaizkion puntuen arabera, aukera ezberdinen artean hautatu ahal izango du: Hausnarketa indibiduala edo Ikaste kuadernoa hobetzen saiatu daiteke edo beste azterketa bat egin dezakete.

EZOHIKO EBALUAZIOA

-Ezohiko deialdira joango dira hiru ebaluazioak kontuan harturik ohiko azken ebaluazioan NAHIKOra iritsi ez diren ikasleak.

-Ikasle guztiei hiru ebaluazioetako edukiak egokituko zaizkie.

-Prozedurak eta kontzeptuak baloratuko dira proba idatzi baten bidez.

-Ikasleek entregatu beharko dute ordura arte eman gabe duten guztia proba idatziaren egunean edo aldeztatik zehaztuko den datan.

BALIZKO ERREPIKATZAILEEN JARRAIPENA

-Ikasle errepikatzaileei jarraipen berezia egingo zaie jarrerari dagokionez. Aurreko ikasturtean gure ikasgaia ez bazuten gainditu, indartze ariketa bereziak emango zaizkie.

OHARRAK

Eskatuko diren **gutxieneko jarrerazko edukiak** hauek izango dira:

1. Errespetua eta Ikastetxeko funtzionamendu arauak betetzea (Gida didaktikoa).
2. Euskaraz jardutea
3. Klaseetan parte hartzea
4. Jarrera aktiboa eta eraikitzailea izatea (ez moztu besteen hitzartzeak, besteei laguntza eskeini...)
5. Lan pertsonala egitea.
6. Talde lanetan jarrera kooperatiboa eta enpatikoa izatea.
7. Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
8. Lanen eta jardueren epeak betetzea.
9. Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
10. Ekintza osagarriak egin ezker, hauetan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
11. Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.

Batez ere puntu hauek kontrolatuko dira eta zuzendaritzari horien berri emango zaie bertaratze parte desegokien bitartez:



Mugikorra klasean erabiltzea (ezin da ez entzun ez ikusi).
Hardware eta softwarearen erabilera desegokia.
Ikasgeletan jatea edo edatea
Errespetu falta irakaslearekiko edo ikasleekiko.
Berandu heltzea